

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gotzone Arostegi Bengoetxea

*Gizaburuaga,
Bizkaia (1961)*

Aurkibidea



Biografia



Gotzone Arostegi, Gizaburuaguako Okamika auzoko Bengolatorre baserriko alaba da. Manso familiaren errenteroak ziren, inguruko hainbat baserrirekin batera. Gotzonek Gizaburuagara joan zen eskolara 12 urtera arte eta gero Lekeition bukatu zituen ikasketak. Taberna batean aritu zen lanean eta bertan ezagutu zuen senarra. Aitaren pausoak jarraituz, postaria izan da eta orain jubilatuta dago.

Zintak

GIZ-014

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-11-25
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Gizaburuagako Bengolatorre baserria

- **Erref:** GIZ-014/003
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:00:46. **Bukatu:** 00:02:53

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Bengolatorre baserrikoa da Gotzone. Bertako maizterrak izan dira gutxienez 1810. urtetik. Ugazabak, Manso familiakoak dira, jatorriz Iruñekoak eta Lekeitioko Uriarte jauregiko jabeak. Garai batean familia honek baserri ugariren jabeak ziren Gizaburuagan. Gariaren prezioaren araberako errenta ordaintzen zen Gotzone umea zenean.</p>

2. Lehenengo garbigailua, Venezuelako izeban ekarria

- **Erref:** GIZ-014/005
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:04:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Umea zenean etxera ez zen ur-korronterik heltzen. Venezuelan bizi zen izeba batek ekarri zuen eskuzko garbigailua etxera. Garbitu egiten zuen baina gero errekan eragiten zen. Telebista tabernan ikusten zen.</p>

3. Gizaburuagako eskola eta andereñoa

- **Erref:** GIZ-014/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:05:46

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gizaburuagako eskolara joan zen eskolara eta gero Lekeition. Bizikletan joaten ziren gehienetan. Mari Nieves Zaldunbide maistra gogoratzen du. Euskalduna bazen ere, gaztelaniaz egiten zien.</p>

4. Gaztelaniaz ez jakitearen ondoriok

- **Erref:** GIZ-014/008
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:06:42

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Neba txikia oraindik eskolaratua ez zegoen batean, kaletik guardia zibilek zerbait galdetu zioten eta gaztelaniaz ulertzen ez zuenez, eskolara eraman zuten maistrari kontuak eskatzeko.</p>

5. Euskaraz alfabetatu gabe

- **Erref:** GIZ-014/009
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:07:40

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Gaztelaniaz ikasi zuen eguneroko gauzetarako eta ikasketak jarraitu ez zituenez ez zen euskaraz alfabetatu.

6. Gizaburuagako eskolan, banderari agurra egiten

- **Erref:** GIZ-014/011
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:08:49

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Eskolan banderari agurra egiten zioten goizero. Ikuskaritzakoak joaten zirenean, aldez aurretik bazekiten isilik eta formal egon behar zirela. Franco hil zen urtean Lekeition ikasten zuen Gotzonek.</p>

7. Frankismoan dena zegoen debekatuta

- **Erref:** GIZ-014/013
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:08:54. **Bukatu:** 00:10:25

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Franco hil baino lehenago ama Basurtuko ospitalean izan zuen hilabete batez. Alboko gaixoak egunero esaten zion Franco hiltzear zegoela baina ez zen hil ama etxera bueltatu zen arte. Gotzonek gogoratzen du frankismo garaian dena debekatuta zegoela.</p>

8. Ama baserriko lanetan eta aita postaria

- **Erref:** GIZ-014/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:13:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Umetako jolasak frontoian izaten ziren: pilotan, elkar harrapatzen... Baserrian behiak eta txahalak zituzten eta berak bertan laguntzen zuen. Normalean amak egiten zituen lan horiek eta aita postari moduan lan egiten zuen.

9. Tabernari izatetik postari izatera

- **Erref:** GIZ-014/019
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:15:19

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Lekeition 16 urterarte ikasi zuen eta gero idazkaritzako pare bat ikastaro egin zituen. Taberna batean lan egin zuen bi urtez eta postari lanetan hasi zen ordezkapenak egiten.

10. Aita eta alaba, biak postariak

- **Erref:** GIZ-014/021
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:16:55

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Gotzoneren aita Gizaburuagan hasi zen postari bezala. Lekeition zakua batu, etxean sailkatu eta tabernan banatzen zuen. Gotzone Correosen hasi zenean, beste emakume bat edo bi bazeuden. Herri txikietan, banaketak leku estrategikoetan egiten ziren, adibidez tabernetan.

11. Jaialdiak kontzertuen ordeztu

- **Erref:** GIZ-014/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:18:25

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Dantzarako zaletasunik ez zuen arren, batzuetan diskotekara joaten zen lagunekin. Garai batean ez zen kontzerturik egoten. Jaialdiak antolatzen ziren.

12. Gizaburuagan "gonbidatuen eguna" ospatzen zen Andramarietan

- **Erref:** GIZ-014/026
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:22:56

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Katalina eta Andramariak dira Gizaburuagan jai egunak. Gaur egun Santa Katalina ez da ospatzen baina garai batean bisigua jaten zen etxeetan. Andramarietan jai gehiago egoten zen eta "gonbidatuen eguna" ospatzen zen.

13. Arbaso ia denak Gizaburuagakoak

- **Erref:** GIZ-014/027
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:22:56. **Bukatu:** 00:24:03

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arbaso guztiak Gizaburuagakoak dira, Aulestiko bakan bat izan ezik.

14. Venezuelara eta Austrialiara lanera joandako senideak

- **Erref:** GIZ-014/028
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:25:24

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Osaba eta izeba batzuk Venezuelara eta Australiara joan ziren lanera. Aitonaren anai batzuk ere Ameriketara joan ziren lanera. Haien ondorengoak bisitan egon izan dira Euskal Herrian.

15. Lekeitioko "dei eittekuek"

- **Erref:** GIZ-014/030
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:28:11

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Izeba bat Lekeitiora ezkondu zen eta "dei eittekue" lanetan ibiltzen zen. Gizonak itsasoratzeko deiak kaleetatik egiten zituzten.

16. Aita Ternuan arrantzale

- **Erref:** GIZ-014/032
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:28:21. **Bukatu:** 00:30:43

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita gaztetan morroi ibili zen itsasoa ikusten zen baserri batean. Handik itsasontziak ikusten zituen eta arrantzale izateko grina piztu zitzaion. Bere lehenengo bidaia "La vida es un tango" itsasontzian egin zuen. Ternuan ibili zen 13 bat urtez lanean.

17. Garai batean etxeko atariak zabalik egoten ziren

- **Erref:** GIZ-014/035
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:31:44. **Bukatu:** 00:32:35

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Garai batean atariak zabalik egoten ziren eta eskutitzak erraz uzten ziren buzoietan. Azken hamarkadetan askoz zailagoa zen zaku osoa banatzea.

18. Paketeek lehentasuna dute eskutitzen aurretik

- **Erref:** GIZ-014/037
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:33:21. **Bukatu:** 00:36:06

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Postariaren lana nahiko mekanikoa da eta lekua ezagutuz gero erraz egiten da. Txirrin inteligenteeekin lana asko atzeratzen zaie postariei. Gaur egun ez da ia eskutitzik bidaltzen eta paketeek lehentasuna izaten dute.

19. Soroan etzanda abioiak pasatzen ikusten

- **Erref:** GIZ-014/040
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:36:38. **Bukatu:** 00:37:49

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Etxean gutxi hitz egiten zen gerraz. Aitonak heriotza-zigorra izan zuen. Gotzoneren ama umea zen gerra garaian. Soroan hegazkinak ikusteko etzaten zen bitartean, amona ezkutatu egiten zela kontatzen zuen.</p>

20. Errotari zigilua kentzen erakitsi zien guardia zibila

- **Erref:** GIZ-014/043
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:39:23. **Bukatu:** 00:40:57

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Amak kontatzen zion inoiz ez zuela goserik pasa gerraostean, baina jendea agertzen zela janari bila. Garia konfiskatu egiten zen eta estraperloan erabiltzen zuten irina.</p>

21. San Juan suan erramua erretzen zen

- **Erref:** GIZ-014/045
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:41:41. **Bukatu:** 00:42:46

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juan suan aurreko urtean bedeinkatutako erramua erretzen zen. Lagun batek amak San Juanetako abesti bat kantatzen zuen, konjuru edo bedeinkapen gisa.

22. Izainak barometro bezala erabiltzen ziren

- **Erref:** GIZ-014/046
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:44:29

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Birramonak izainak izaten zituen etxean, ubeldurak edo odolbatuak xurgatzeko. Pote baten izaten zituen eta eguraldiaren arabera gora eta behera egiten zuten izainek, barometro bat izango balira bezala. Birramonak, ilargiari ere begiratzen zion baratzeko lanetarako.

23. Taberna gizonen lekua zen

- **Erref:** GIZ-014/049
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:45:48. **Bukatu:** 00:46:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak ez ziren tabernara joaten. Ama erromerietan eta momentu puntualetan joaten zen. Amona inoiz ere ez.

24. Ama beldurpean hazi zen

- **Erref:** GIZ-014/051
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:50:41

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ama behin Ispasterreko erromeriatik bueltatu zen kamioi batean eta txutxumutxuak zirela eta, Hijas de Maria kongregaziotik bota zuten. Ama beldurrean hazi zela kontatzen du baina ez ordea bere amona. Hura beti zegoen jairako prest.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com